

Aitormena

Ez dira betiko garai onenak azken finean __1__ hutsak gara Barearen ostean dator __2__ Udaberri berririk ez guretzat Denborak aurrera etengabean ta orain ezin eutsi izan ginena rutinaren __3__ bihurtu gara laztana lehen baino lehen aska gaitezen.

Ohartu gabe arrunt bilakatu da Ohartu gabe heldu gara __4__ Mundua jausi zaigu gainera maitia lehen baino lehen aska gaitezen.

Ez dakigu non dagoen hoberena Bila dezagun beste lekuetan Bai, zin dagizut ez dizudala inoiz __5__ esan eta zaude ziur ezin izango zaitudala ahaztu inoiz aitortzen dut izan zarela ene bizitzaren __6__ baina orain, maitia lehen baino lehen aska gaitezen.

- 1- Goxoki / gizaki / gizenak
- 2- Ikara / ikatza / ekaitza
- 3- Morroiak / marroiak / miseriak
- 4- Asperdurara / hasierara / mugara
- 5- Beldurrik / egaririk / gezurrik
- 6- Onena / morena / gorrena

1. Testu ingurua kontuan hartuta, aurreikusi hutsuneetan kokatu beharreko hitz egokiak. Ikusi **bideoa** eta konprobatu aukera zuzenak hautatu dituzun.

2. Zein da zure ustez kantaren esanahia?

AITORMENA euskal kantagintza modernoko kantarik ezagunenetakoa da. *Hertzainak* taldeak egin zuen bere ibilbideko azken urteetan. **Itxuraz**, desamodio kanta bat da, apurtutako maitasun harreman baten azkenetan maitale izandakoari dedikatua. Baina badago kantaren esanahiaren inguruan kondaira beltz bat. **Zurumurruek diote** arrakasta urte haietan taldekideek gehiegikeria asko egin zituztela, eta **badirudi** droga asko ere kontsumitu zituztela; hortaz, **kondaira beltz horren arabera**, kanta ez dago pertsona bati dedikatuta; aitzitik, heroinari dedikatutako abestia **omen** da.

3. Ezagutzen al duzu beste kanta edo musikariren inguruko hiri kondairarik? Kontatu beltzez markatutako egiturak erabiliz.

Adibidez: **Zurumurruen arabera** Led Zeppelin taldearen diskoak atzekoz aurrera jarrita mezu satanikoak entzuten ziren...

4. Jarraian ikusiko duzun bideoan Zuhaitz Gurrutxaga kazetari eta musikazaleak kondaira horrextaz galdetu die *Hertzainak* taldeko Gari eta Josu Zabalari... Zer erantzun dute taldekideek kantaren esanahiari buruz?

